

# ZAINKETEN ERRADIOGRAFIA NAFARROAN

## Diagnostiko-txostena

### LABURPEN EXEKUTIBOA

#### Sarrera: zainketa-lanak gizarte eta familia geografietan kokatzen

---

«Zainketez» mintzatzean, kontzeptu erabakigarri eta maiz labainkor batean biltzen ditugu pertsona orok ditugun desioak eta beharrak –izaki (inter)dependenteak garen aldetik–, bizitzaren sostengua eta ugalketa ez ezik, ongizate materiala, fisikoa eta afektibo-emozionala ere bermatzeko. Zainketak asetzeko eta bizitzan aitzina egiteko, beharrezkoak ditugu eguneroko eta ohiko lanak eta (pre)okupazioak, ordainduak ala ordaindu gabeak. Lan horiek areagotu egiten dira bizitzako etapa jakin batzuetan, hala nola haurtzaroan, zahartzaroan, gaixoaldian, dolu emozionalan edo kalteberatasun materialeko egoeretan.

Zainketa lan horiek hainbat aukera eskaintzen dituzte beste norbaiten esku uzteko edo kanpora ateratzeko eta/edo urrutitik egiteko (adibidez, teknologia digital berriei esker), eta, batez ere, hiru eratako zereginak biltzen dituzte. Hasteko eta behin, «etxeko lan» gisa izendatu ohi diren egitekoak (konparazio batera, etxea garbitzea eta antolatzea, erosketak egitea, otorduak prestatzea, arropa zaintzea...). Bigarrenik, zuzeneko zainketak, pertsonen artean ematea/pertsonekin interakzioa izatea eskatzen dutenak, batik bat adingabeei eta/edo mendekotasunak dituztenei gagozkizela (halaber, *zuzenean* zaintzen ditugu, adibidez, lagunak, senideak, bikotekideak eta halako beste pertsona «independente» batzuk emozionalki laguntzen ditugunean dolu prozesu batean; edo gure maskoten behar guztiez arduratzen garenean, jolasa bera barnean harturik). Eta, azkenik, «kudeaketa mentaleko» zereginak, zaintza guztiak planifikatzea eta gainbegiratzea eskatzen

duinak; hau da, oraingo eta etorkizuneko gabeziak edo nahiak identifikatzea eta horiek nola konpondu jakitea eta erabakitzea (esate baterako, erosketa zerrendak egitea eta jakitea noiz den beharrezkoa erosketak egitea, asteko menuak planteatzea, bizimodu osasungarria izatea, medikuarekin hitzorduak programatzea eta gogoan hartzea, familia osoaren agenda antolatzea aisiarako denbora izate aldera, etab.).

Eguneroko zeregin horietako asko erraz identifika daitezkeen arren, beste batzuk nahasgarriak dira; ez dira zaintza gisa izendatzen edo ulertzen, eta are gainjarri edo nahasi egiten dira haien denborak eta *tasunak*, zainketen desio eta premien aniztasun, berezitasun eta elastikotasun izugarriak eraginda eta horiei erantzuteko asetze estrategia eta lanen ondorioz. Horren adibide dugu, konparazio batera, seme-alaba adingabeekin ematen den aisialdi denbora, zeinak zaintzalan aktiboa eta etengabea eskatzen baitu orain-oraingoz ere; agerian uzten du hori, orobat, eskolaz kanpoko jarduerak planifikatzeko edo eskola bilerak egiteko atsedendaldietan edo lan ibilbideetan baliatzen den denborak, Interneti eta gailu mugikorrei esker; eta ederki erakusten du, halaber, zaintzaile profesionalek eta adineko pertsona batek elkarri eman diezaizoketen laguntzak eta gozamenak, telebista elkarrekin ikusten duten bitartean edo parkean elkarrekin eserita daudela.

Konplexutasun horri gaineratu behar zaio motibazio ugari eragiten dutela zainketa, arrazoia ez baita izaten beti maitasuna, elkartasuna edo afektua; hau da, zaindu liteke inor konpromisoagatik, diruagatik edo presio soziokulturalagatik, eta ohikoa ere izaten da arrazoi horiek modu nahasgarrian eta korapilatsuan elkartzea –arrazoi batzuk gertuago izaten dira obligaziotik, borondate edo norbere haututik baino, zaintzaile kalteberenekin gertatzen den moduan, kasu–. Hain justu ere, zaintzaren egungo eraketa (eta eraketa historikoa) emakumeek beren etxeetan eta etxetik kanpo egunero egiten dituzten lanen mende dago nagusiki (lan prekarioak edo ordaindu gabeak, gehientsuenak), zeinak *funtsen* zaintzaile bihozbera eta altruistaren rolaekin identifikatzen dituen genero estereotipoari erantzuten baitio. Hori horrela, genero desberdintasuna estimulatzen duen presio sozioekonomikoko mekanismo gisa irakurri behar da –eta, aldi berean, genero desberdintasun horrek berak estimulatua–. Halaxe aitortzen du Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legeak, identifikatzen baitu iraun egiten dutela desorekek zainketen banaketan (maila pribatuan eta sozialean), zeinak nagusiki feminizaturik eta ikusezin bihurturik baitaude merkatuan garaturiko eta tradizionalki maskulinizaturiko «lan produktibotzat» hartzen den horren zentraltasunaren aitzinean. Desberdintasun hori are goriago bilakatzen da krisialdi ekonomikoetan, Atzeraldi Handian ikusi genuenez eta gaur egun ere bistaratu zaigunez –COVID-19ak eragin duen krisialdi *berriaren* esparruan–, bereziki Espainiako, Nafarroako eta halako gizarte familistetan, zeinetan familien eta, bereziki, emakumeen bizkar geratzen baitira zerbitzu publikoen eta enpresen erantzunik jasotzen ez duten zainketen desio eta premiak.

## Helburuak eta metodologia

---

Errealitate hori argitara ekarriz, txosten diagnostiko honen helburua izan da nolabaiteko erradiografia bat egitea Nafarroako etxeetako zainketen praktiken, baldintzen eta harremanen artean, Foru Komunitatean bizi diren emakume eta gizonak aintzakotzat harturik, eta arreta berezia paratzea bizitzaren sostengurako praktikak eta erantzukizunak eratzeko jarduerekin loturiko genero desberdintasun edo konbergentziei. Horretarako, Nafarroako Estatistika Institutuak (NASTAT) 2016an argitaraturiko Inkesta Soziala eta Bizi Baldintzei buruzkoa hartu da (ISBB 2016), eta, zehazki, inkesta haren I. blokeko emaitzak azaldu, zerrendatu eta interpretatu dira («Lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliatzea»). Aipaturiko inkesta horretan, 698 gizonak eta 724 emakumeek parte hartu zuten orotara. Osagarri gisa, ISBB 2016 inkestan lortutako datuak beste baliabide batzuekin alderatu dira, nola Estatuakoak hala Foru Komunitatekoak: Desgaitasunei, autonomia pertsonalari eta mendekotasun egoerei buruzko 2008ko Inkesta, eta 2018ko Biztanleria Aktiboaren Inkestako lan eta familia bizitza kontziliatzeari buruzko modulua (biak ala biak Estatistikako Institutu Nazionalak eginak), eta, horretaz gainera, Nafarroako Estatistika Institutuak, Estatistikako Institutu Nazionalak edo Ikerketa Soziologikoetarako Zentroak garaturiko bestelako inkestak eta baliabide estatistikoak ere erabili dira.

Emaitza horiek irakurtzeko eta interpretatzeko, diziplinarteko genero ikuspegi kritikoz gidaturiko analisi kualitatiboa baliatu dugu, zeina bereziki ekonomiari aplikaturiko teoria feministan oinarriturik baitago –baina baita soziologiari, antropologiari, politologiari eta kultur ikasketei aplikaturikoan ere–.

Emaitza horien aurkezpena eta analisisa hiru azterketa dimentsio nagusitan xedatu dira, zeinak estu loturik baitaude bata bestearekin: (1) Nafarroako etxeetan zainketa-lanak antolatzeke eta banatzeko modua; (2) Foru Komunitatean bizi diren pertsonen familia, pertsona eta lan bizitza kontziliatzeko baldintzak eta aukerak; eta (3) Nafarroan bizi diren pertsonen genero (des)berdintasunari buruzko pertzepzioak eta esperientziak, bai oro har harturik, bai Foru Komunitateari bereziki erreparaturik.

## Emaitza nagusiak: zainketa-lanen antolaketa eta banaketa

ISBB 2016 inkestako datuei erreparaturik, familia eredu ohikoenak seme-alaba bat edo gehiago dituzten bikoteak dira (% 32, hain zuzen); halaxe da gizonen % 46ren eta emakumeen % 40ren kasuan. Hala ere, Nafarroan bizi diren pertsonak familia eratzeko dituzten modu askotarikoak ikusirik, zalantzan jartzen da mota horretako bizikidetza soluzioen –zeinak «familia nuklear» heteronormatiboekin (hots, aita-amak eta seme-alabak) identifikatu ohi baitira– hegemonia konbentzionala; izan ere, seme-alabak dituzten bikoteak guztizkoaren % 32 dira, eta gainerako % 68a honako bizikidetza eredu hauetan banaturik dago: Nafarroako etxeen % 27 pertsona bakarrekoak dira –gizonen % 11k eta emakumeen % 12k halako etxeak osatzen dituzte (halako emakumeen kasuan, gehienek diru-sarrera altuak dituzte); % 21, berriz, bikoteek osatuta daude –gizonen % 23 eta emakumeen % 21 sartzen dira eredu horretan–; % 13, ordea, estatistiketan jaso ohi diren familia eta bizikidetza ereduetatik apartekoak dira –gizonen % 15ek eta emakumeen % 18k halako etxeak osatzen dituzte–, eta, azkenik, etxeen % 6 seme-alabekin bakarrik bizi diren emakumeek eta gizonak osatuak dira. Guraso bakarreko halako familiei dagokienez, nabarmentzekoak dira ama ezkongabeek osaturikoak, familia eredu horren % 65,5 baitira; horien barnean, aipatzekoak dira, diru-sarrera altuak dituztenak, pertsona bakarreko etxeetan gertatzen den bezala. Horretaz gainera, familien tamainari dagokienez, murriztu egiten da elkarrekin bizi diren pertsonen batezbestekoa –nabarmentzekoa da guraso bakarreko etxeen batezbestekoak gora egiten dutela–.

Hala ere, bizikidetza moduak alde batera utzita, genero desberdintasunek jarraitzen dute izaten nagusi zainketa-lanak banatzerakoan; hori horrela, bereziki feminizaturiko lan, (pre)okupazio eta erantzukizun izaten jarraitzen dute zainketa-lanek, Nafarroako etxeetan emakumeek maizago hartzen baitituzte beren gain inor zaintzeko lanak. Ildo horretan, Nafarroan bizi izanik, zainketa-lanetan proportzionalki neurri handiagoz eta maizago diharduen pertsonaren erretratu (proto)tipoa egin beharko bagenu, tasun hauek nabarmenduko genituzke: 65 urtez goitiko emakumea (eta horren ondoren, emakume gaztea); ikasketarik ez duena (eta horren ondoren, goi mailako ikasketak dituena); bikotekidearekin bizi dena (etxeke lanen kasuan), edo, bestela, guraso bakarreko familia batean edo bestelako bizikidetza motaren batean integratuta dagoena (adingabeak eta mendekoak zaintzearen kasuan); erretiratu, langabea edo lanaldi partzialez diharduena; eta/edo diru-sarrera apaleko etxe batean bizi dena. Gainera, Nafarroan bizi izanik, okupazio nagusia zainketa-lanetan jardutea duten pertsonen % 100 emakumeak dira –bereziki, 65 urte edo gehiagoko emakumeak, ikasketarik ez dutenak, bikotekidearekin bizi direnak eta/edo diru-sarrera apalak dituztenak–.

lido horretan, emakumeak dira inkestan jasota dauden zeregin guzti-guztiak beti egiten dituztela dioten gehientsuenak. Gainera, zainketa-lanak egiten diren gehienetan parte hartzen dutela dioten emakumeen proportzioa ere, oro har, gizonena baino handiagoa da; hala ere, mahaia jasotzean eta mendekoak zaintzean (etxean zein etxetik kanpo), lan horiek egiten beren gain dituzten gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da gehienetan. Bestalde, erosketak egiteari erreparatzen badiogu, gehienetan orekatuta dago eginkizun hori emakumeen eta gizonen artean. Ohiko etxeko lanetan nabari izaten dira gehien emakumeen eta gizonen inplikazioaren arteko aldeok, batez ere jantziei (arropak zaintzea, garbitzea eta lisatzea) eta etxeko garbitasunari dagokienez. Gizonak inplikatzen direnean ere, emakumeak baino askoz maiztasun eta intentsitate txikiagoan aritzen dira, eta normalean jarduera zehatz eta mugatuetan (egunerokoak izan arren, hainbeste denbora eta ahalegin eskatzen ez dutenak), eta, inondik ere, emakumeek beren gain hartzen duten lanaren osagarritzat jo daitezke. Alabaina, interesgarriagoa da gizonen inplikazioak gora egitea mendekotasuna duten pertsonen zaintzan –hala ere, ISBB 2016 inkestako datuen arabera, Nafarroako etxeen % 86an ez da bizi mugapenik duen pertsonarik–. Halaber, nabarmentzekoa da gizonen partaidetza areagotu izana 15 urtetik beherakoen zaintzan ere, nabarmen igo baita 2006ko datuekin parekatuz gero. Adingabeak artatzeari erreparatuz gero, nabarmen handitzen da zaintza zuzen horiek beti eta gehienetan beren gain hartzen dituztela diotenen arteko genero arrakala, egiteko horrek bereziki eta erabat feminizaturik jarraitzen baitu.

Nafarroako etxeen ia % 13k kanpoko laguntza jasotzen du etxeko lanak egiteko eta adingabeak eta mendekoak zaintzeko. Nafarroako etxeek neurri handiagoan jasotzen dutenean kanpoko laguntza hori, honako jarduera hauetarako izan ohi da, hurrenkera honetan bertan: etxea garbitzea eta arropa zaintzea eta prestatzea (gogoan izan, gainera, lan horiek direla gehien feminizaturik daudenetako bi). Aldiz, gutxien kanporatzen duten edo besteren esku gutxien uzten dituzten lanen artean ageri dira zuzeneko zainketa-lanak, bereziki adingabeei dagokienez (nabarmendu behar da, halaber, adingabeak zaintzea oraindik ere hagitz feminizaturik dagoela). Laguntza hori gehienetan ordaindua da, eta senideek, lagunek, auzokideek, elkarteek edo udal zerbitzuek emaniko laguntzaz bestelakoa (hortik ondorioztatzen da laguntza profesionala dela), nahiz eta senideek emanikoak ere funtsezko bitarteko izaten jarraitzen duen. Halako laguntza hein handiengan jasotzen duten etxeak hauek dira: pertsona bakarrekoak eta askotariko familia eta/edo bizikidetzak ereduak dituztenak; diru-sarrera altuak eta ertain/altuak dituztenak; eta bi kideko etxeak (kideotatik batek nolabaiteko mugapena izanik). Generoari dagokionez, emakumeek gehiago jasotzen dute kanpoko laguntza mota hori; zehazkiago esanik, 65 urteko edo gehiagoko emakumeek (eta gizonak); goi mailako ikasketak dituzten eta ikasketarik gabeko emakumeek eta gizonak; bakarrik bizi diren emakumeak eta guraso bakarreko familiak osatzen dituzten gizonak; eta/edo beste lanbide batzuetan diharduten emakumeek eta gizonak. Erretiratuak edo pentsiodunak ditugu horien ondoren.

Emakumeek eta gizonak zainketa-lanetan ematen duten denborari buruz duten pertzepzioaren gaineko datuek adierazten dutenez, emakume eta gizon gehien-gehienek onartzen dute egokia iruditzen zaiela etxeko lanetan eta zuzeneko zaintzan ematen duten denbora. Hala ere, pertzepzioen kontzentrazio proportzionaletan ageri diren genero desberdintasun nabarmenek hauxe adierazten dute: emakumeek, zainketa-lanak maizago eta intentsitate handiagoz egiteaz gainera, gehiago adierazten dute ez daudela pozik egoera horrekin: etxeko lanetan denbora gehiegi ematen dutela uste dutenen % 85 emakumeak dira; adingabeen zaintzan denbora gehiegi ematen dutela aitortzen dutenen % 72, berriz ere, emakumeak dira; eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzen ematen duten denbora gehiegizkotzat jotzen dutenen % 73, beste behin ere, emakumeak dira. Gizonak, aldiz, zainketa-lanetan nahikoa ez dutela egiten onartzen dutenen artean kontzentratzeko joera dute. Genero asimetria hori arindu edo ñabartu egiten da, hein batean, adingabeak eta mendekoak zaintzen emandako denboren pertzepzioan, etxeko lanetan emandako denboraren gaineko pertzepzioarekin alderaturik, lehen azaldutako emaitzen ildotik; izan ere, adierazten zen gizonak gero eta gehiago inplikatzeko direla adingabeak eta, batez ere, mendeko pertsonak zaintzeko lanetan, eta etxeko ohiko lanak banatzean gertatzen direla oraindik ere desberdintasunik handienak zainketak antolatzeari dagokionez. Ikus daitekeenez, emakumeak deskonforme ageri dira gizonetako adingabeak eta mendekotasunak dituzten pertsonak zaintzen emandako denbora eskasaren gainean, eta are deskonformeago ageri dira gizonetako etxeko lanetan duten inplikazio urriarekin.

## Emaitza nagusiak: lana eta familia kontziliatzeko baldintzak eta aukerak

---

ISBB 2016 inkestako datuek adierazten dute Nafarroan bizi diren gizon-emakumeek enpleguarekin harreman desberdina dutela, Espainiako Estatuko gainerako lekuetan gertatzen den bezala. Nafarroan enplegatutako pertsonen % 58 gizonak dira; alde horretatik, gizonen enplegagarritasuna bereziki handia da 25 eta 34 urte bitartekoen, goi mailako unibertsitate tituluak dituztenen, bikotekideekin eta/edo seme-alabekin bizi direnen eta/edo diru-sarrerara handiak dituztenen artean. Emakumeen kasuan, eredu bera errepikatzen da, adinari dagokionez izan ezik; izan ere, 35 eta 44 urte bitartekoak daude enplegaturik proportzio handiengan. Bestalde, lanaldi osoko langileen % 60 gizonak dira, eta lanaldi partzialeko langileen % 76 emakumeak –batez ere, 25 eta 34 urte bitartekoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, oinarrizko batxilergoa eta/edo erdi mailako Lanbide Heziketa dutenak, bikotekideekin eta seme-alabekin bizi direnak eta/edo diru-sarrerara ertain/baxuak dituztenak–. Hau da, emakumeen % 25ek lanaldi erdiz dihardu lanean, eta

gizonen kasuan, berriz, % 6,5ek soilik du lanaldi eredu hori. Beste hitz batzuekin esanda: emakumeak gizonak baino ia lau aldiz gehiago zeuden lanaldi partzialean 2015-2016 aldian. Horretaz gainera, lanaldi partzialean lan egiten duten emakume eta gizon gehienak lanaldi osoko lanak aurkitzen ez dutelako daude egoera horretan –hala baieztatzen dute gizonen % 38k eta emakumeen % 34,5ek–, baina lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeen % 23k aitortzen du familia betebeharrekin baldintzatzen dutela lanaldiaren iraupena. Aldiz, lanaldi partzialean diharduten gizonen % 11k soilik partekatzen dute arrazoi hori. Hori horrela, Nafarroan bizi diren eta lanaldi partzialean diharduten langileen % 87 emakumeak dira, eta, haien esanean, familia betebeharrekin eragina da lanaldi partzial hori.

Datu horietan oinarriturik, ISBB 2016 inkestatik lorturiko emaitzek haxe adierazten dute: nahiz eta emakume zein gizon landunen ehuneko handienak adierazten duten ahalegin txikia eskatzen diela lan formala eta etxeko lanak kontziliatzeak, emakumezkoen bigarren portzentaje handienak adierazten du kontziliazio horrek ahalegin txikia eta nahikoa ahalegin eskatzen diela (gizonen bigarren ehuneko handienak, berriz, argi eta garbi adierazten du kontziliazioak ahalegin txikia eskatzen diela, edo ez diela eskatzen nolako ahaleginik). Halaber, bi erantzukizunak kontziliatzea nahikoa eta asko kostatzen zaiela esaten duten pertsonen % 60 emakumezkoak dira.

Ordaindutako lana eta adingabeen zainketa kontziliatzeak Nafarroako biztanleei eskatzen dien ahaleginari dagokionez, kontziliazio horrek ahalegin handia eskatzen diela uste dutenen artean dago emakumeen ehuneko handiena, eta horien ondoren, berriz, kontziliazioak ahalegin txikia eskatzen diela uste duten emakumeak ditugu. Gizonen kasuan, ordea, kontziliazio horrek ahalegin txikia eskatzen diela onartzen dutenei dagozkie ehuneko handiena, eta, horien ondotik, inolako inplikaziorik ez dutela deritzoten ehunekoak. Erreparatzen badiogu zenbaterainoko ahalegina eskatzen dien Nafarroan bizi diren pertsonen ordaindutako lana eta mendekotasuna duten pertsonen zainketa kontziliatzeak, bai gizon gehienek bai emakume gehienek adierazten dute kontziliazio horrek ez dakarkiela batere ahaleginik. Dena den, ardura hori gizonen inplikazio nabarmenetako bat izanik ere, zaintza horiek eta lana kontziliatzeak ahalegin handia eskatzen diela uste dutenen % 81,5 emakumezkoak dira.

Zaintzan emandako denborak enplegarritasunean edo lanbide karreran duen inpaktuari dagokionez, gizonen % 72k adierazten du zaintzak ez duela izan inolako eraginik zaintzetan edo lanean izaniko promozioan, baina ehuneko hori nabarmen murrizten da emakumeen kasuan (% 51), nahiz eta haien erdiek uste duten zaintzetan parte hartzeak ez duela izan eraginik haien karreran. Hala eta guztiz ere, gai horri erantzun bat edo bestea eman diotenen genero proportzioari erreparatuz gero, ikusten da emakumeak direla zaintzan emandako denborak beren ibilbide profesionalean eragin handia izan duela onartzen dutenen % 86, bai eta erabateko eragina izan duela diotenen % 96 ere. Emakumei eta gizonei planteatu zaienean ea beren ustez zainketa-

lanetan aritzeak potentzialki esku hartzen ahal duen beren karreraren etorkizuneko garapenean, ikusten da berdintzera jotzen dutela aurreko ehunekoek; nolana ere, ez dute galtzen sendotasuna, ezta genero zentzu interesgarria ere. Hori horrela, gizonen % 65ek uste du zainketa-lanetan aritzeak ez lukeela inola ere baldintzatuko haien garapen profesionala; emakumeen erdiek baino gehiagok uste hori bera dute gaur egun. Hala ere, zainketa-lanetan parte hartzeak beren karreran eragin handia izan dezakeela uste dutenen % 64 emakumeak dira, eta erabateko eragina izan dezakeela uste dutenen artean, berriz, % 90 dira emakumeak. Gainera, alderatzen baldin badugu zer genero proportzio dagoen bizitako esperientzien («baldintzatu du») eta proiektatutako itxaropenen («baldintzatu lezake») artean, ikusiko dugu emakumeek esperientzia baino itxaropen hobeak dituztela, eta gizonen kasuan, aldiz, esperientziak hobeak direla itxaropenak baino.

Lana, familia eta bizitza pertsonala kontziliatzeko neurriak erabiltzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen artean baliabide horien erabilera benetan gutxienena da (oraindik): adingabeen zaintzari dagokionez (halakorik denean), gizonen % 8k baino ez ditu baliatu kontziliazio neurriak; emakumeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 13 da (beste modu batean esanda, Nafarroan bizi diren eta laguntza hori erabili duten pertsonen % 63 emakumezkoak dira). Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez (halakorik zaintzen denean), halako kontziliazio neurriak emakumeen % 3k eta gizonen % 2,3k baliatu dituzte –Nafarroan bizi diren eta halako zerbitzuak erabili dituzten pertsonen % 57 emakumeak dira–. Hori horrela, emakumeek onartzen dute neurri horiek gehiago erabili dituztela adingabeak eta mendekoak zaintzeko, eta, gainera, emakumeek adierazten dute proportzio handiengan ez dituztela baliatzen neurri horiek –bereziki mendekotasuna duten pertsonak zaintzearen kasuan–. Ez erabiltze horren arrazoia ez da ez zituztela eskatzen, baizik eta ez zela halako neurririk, eta, batez ere, ez zirela egokitzen haien beharretara. Gainera, zainketa-lanak egiteko kanpoko laguntza duten pertsonen artean, adierazi behar da emakume eta gizon landunak ez direla ageri laguntza hori gehien baliatzen dutenen artean. Lanaldiaren arabera, lanaldi partzialean lan egiten duten gizonen eta lanaldi osoan lan egiten duten emakumeek jasotzen dute gehien laguntza mota hori.

Azkenik, norberaren aisialdirako aukerari dagokionez, gizonen emakumeek baino denbora gehiago izaten dute, bai aste barruan, bai asteburuetan. Astegunetan, oso txikia dirudi gizonen eta emakumeen arteko denbora librearen aldeak: 20 minutukoa nazionalen artean, eta 21ekoa kanpoko nazionalitatea dutenen artean. Hala ere, tarte hori nabarmen areagotzen da asteburuetan: nazionalen kasuan, gizonen ordubate eta minutu 1 gehiago izaten dute emakumeek baino, eta kanpoko nazionalitatea dutenen artean, aldiz, ordubate eta 32 minutukoa da aipaturiko alde hori. Emakumeek eta, batez ere, 65 urteko edo gehiagoko gizonen izaten dute denbora libre gehien aste barruan; asteburuan, berriz, gizon gazteenek izan ohi dute denbora libre gehien –hau da, 15 eta 24 urte bitartekoek–. Emakumeen artean ere 65 urteko edo hortik gorakoek izaten dute denbora libre gehien. Ikasketa mailari erreparatuz gero, astegunetan eta asteburuan emakumeek



eta, batez ere, ikasketarik gabeko gizonak eduki ohi dute denbora libre gehien, alde handiarekin, gainera. Eta, etxe motaren arabera, bakarrik bizi diren emakumeek dute denbora libre gehien, bai aste barruan, bai asteburuetan. Gaur egun, oraindik ere genero alde nabarmenak ageri dira gizonak eta emakumeak izan ohi duten denbora librean ere, eta gizonak dute denbora gehien kirolarekin, informazioarekin, aisialdiarekin, atsedenearekin eta ongizatearekin loturiko jarduerak edo sozializatzekoak planifikatzeko eta horietan parte hartzeko.

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak emaniko definizioari jarraituz, kontziliazioak honako alderdi hauek bildu behar ditu: (1) erantzukizunak partekatzea; (2) enpleguari, zaintzari eta norberari eskaintako denbora-tarteak berrantolatzea; (3) zaintzari egiten zaizkion ekarpenak berdintasunez banatzea, edonolakoak direla ere; eta (4) egitura eta harreman «produktiboak» birdoitzea, enplegatutako pertsonen zaintza emateko eta jasotzeko desio eta premiak kontuan harturik. Emaizteak honako hau uzten dute agerian: nahiz eta Nafarroako biztanleek aitortu oro har ahalegin txikia egiten dutela enplegua eta zainketa-lanak kontziliatzeko, oraindik ere ase gabe eta osatze-tik urrun jarraitzen dute kalitatezko kontziliazioa egituratzen duten lau puntu horiek guztiek, bereziki emakumeen kasuan.

## Emaitza nagusiak: genero (des)berdintasunaren pertzepzioak eta esperientziak

---

ISBB 2016 inkestako datuen testuingurua emateko, komeni da Nafarroako 2017rako Genero Berdintasunaren Indizearen emaitzak berreskuratzea. Indize horren arabera, Foru Komunitatean berdintasunak 100 puntutik 70 lortu zituen, eta ia 2 puntuz gainditu zuen Estatuko batezbestekoa. Alde horretatik, bereziki nabarmena da Nafarroan bizi direnek hautemandako eta/edo izandako genero berdintasuna honako faktore hauei dagokienez: osasuna (88,4 puntu), dirua (78,3 puntu) eta enplegua (71,2 puntu). Aldiz, hauek dira daturik kaskarrenak ageri dituzten dimentsioak: botere posizioen banaketa (60,6 puntu), jakintza/prestakuntza lortzea eta eskuratzea (65,8 puntu) eta denboraren erabilera bereizia (68,8 puntu). Gainera, ISBB 2016 inkestak berak jasotzen zuzenez, Nafarroan bizi diren gizon eta emakume gehien-gehienak ez ziren izan genero diskriminazioaren biktima azken urtean (kasu honetan, 2015etik 2016ra). Hala aitortzen zuten, hain justu, gizonen % 99,5ek eta emakumeen % 94k. Hala ere, ikusten da, alde batetik, 5,5 puntuko aldea dagoela genero egoeratik arazorik izan ez duten gizonen eta emakumeen artean, eta, bestetik, emakumeak direla buru azken urtean diskriminazio hori sarritan jasan dutela dioten artean (emakumeen % 1,3k eta gizonen artean inork ere ez) eta inoiz edo behin nozitu dutela dioten artean (emakumeen % 4,4k eta gizonen % 0,5ek).

ISBB 2016 inkestako I. blokeko datuetara itzuliz, gizonak zein emakumeek adostasun maila handia dute bi generoek eskubide berberak dituztela adierazteko garaian: 0 eta 10 bitarteko eskala batean, non 10 puntuk «erabat ados» adierazten baitu, gizonak batez beste 9 puntu eman zizkioten baieztapen horri, eta emakumeek, aldiz, 8 puntu. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruzko balioespenari dagokionez, kasu honetan desadostasun handiagoa nabari da bi generoen artean; izan ere, nahiz eta ados egon egun aukera berdina dituztela baieztatzean, gizonak batez beste 7 puntu eman zizkioten aukera berdintasun horren gaineko adostasunari, eta emakumeek, berriz, 5 puntu. Beraz, ikusten da gizonak irmoago aitortzen dutela genero berdintasunaren errealitatea edo eraginkortasuna bi gai horietan, batez ere eskubideen arloan; halaber, murriztu edo apaldu egiten da gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eraginkortasunaren onarpena, bereziki garrantzitsua emakumezkoen artean. Hori horrela, nolabaiteko desfasea ageri da berdintasun *formalaren* eta berdintasun *errealaren* artean (alegia, eskubideak onartzea vs egiazko aukerak).

Feminitate garaikidearekin loturiko *nahiei* dagokienez, gizonak zein emakumeek adierazten dute modu nabarmenean ez datozela bat bi estereotiporekin: alde batetik, emakumeek ama izan behar dutela errealizaturik sentitzeko, eta, bestetik, emakumeen *benetako* nahia –baita enplegu bat izanik ere– familia osatzea eta seme-alabak izatea dela (10etik 3 puntu, bi kasuetan eta bi generoek emaniko erantzunetan). Feminitate garaikidearekin loturiko *erantzukizunei* erreparatzen baldin badiegu (amatasunaren ingurukoak), gizonak eta emakumeek aurreko kasuaren antzeko joera dute, baina ñabardura interesgarriren batekin. Alde batetik, emakumeak eta gizonak nahiko ados daude honako ideia honekin: emakume landun batek etxetik kanpo lan egiten ez duen emakume batek bezain harreman goxo eta segurua izan dezakeela seme-alabekin (emakumeek zein gizonak 7 punturekin balioesten dute batez beste adostasun hori). Hala ere, Nafarroan bizi diren pertsonen galdetu zaienean ea sei urtetik beherako haur batek nozitu ote dezakeen bere ama landunaren absentsia, badirudi gizonak eremu neutralean daudela (batez beste bost punturekin adierazten dute baieztapen horrekiko [des]adostasuna), eta emakumeek, berriz, desadostasunera jotzen dute (lau puntu, batez beste). Feminitate garaikidearekin loturiko *aukerei* dagokienez, gizonak zein emakumeak oso ados daude ideia honekin: emakumeentzat ordaindutako enplegua da independente izateko biderik onena. Gizonak zein emakumeek balioesten dute ados daudela baieztapen horrekin (eta zortzi puntu ematen dizkiote, batez beste).

Zehazkiago esanik, ikusten da prestakuntza maila txikiagoa eta diru-sarrera urriagoak dituzten pertsonen –eta, bereziki, gizonen– hein handiagoan datozela bat gaur egun emakumea denari –edo emakumeak izan behar duenari– buruzko ideia edo planteamendu estereotipuekin, batez ere amatasunari eta horrek enpleguan eragiten dituen tirabirei dagokienez. Oro har, hezkuntza maila eta diru-sarrera altuagoak dituzten pertsona gazteenek irmoago adierazten dute ideia estereotipatu horiekin ez daudela ados, eta nolabaiteko joera dute, gainera, emakumeen eta gizo-

nen eskubide eta aukera berdintasuna dagoelako irudipena moderatzeko. Halaber, nabarmen-tzekoa da gazteenen kasua; izan ere, emakumeek independentzia lortzeko biderik onena enplegua delako iritziarekiko adostasuna apalagoa da gazteenen artean –agian, lan aukerak falta zaizkielako eta enplegu-baldintza prekarioak dituztelako jotzen dute gazteek iritzi hori izatera–; aldiz, eta espero zitekeen bezala, diru-sarrera altuenak dituzten emakumeek adierazten dute irmotasunik handienarekin enplegua dela biderik onena independentzia lortzeko. Interesgarria da ikustea diru-sarrera altuak dituzten emakumeek, beren tarte ekonomikoko pertsonak markatutako joera etenez, moteldu egiten dutela apur bat honako aurreiritzi honekiko desadostasun maila: alegia, emakumeek egiaz familia bat osatu eta ama izan nahi dutela –kasu horretan, diru-sarrera apalak dituzten emakumeekin bat etorri–. Azkenik, Nafarroako biztanleen okupazioari erreparatuta, zaila da patroik edo joera adierazgarri bat aurkitzea; nolana ere, ikusten da ikasleak, landunak eta beste okupazio batzuetan diharduten emakumeak, oro har, urrundu egiten direla planteamendu estereotipatuotatik. Beste lanbide batzuetan aritzen direnen kasuan, gainera, kritikoago ageri dira emakumeek eta gizonak eskubide eta aukera berberak dituztela dioten baieztapenarekin. Aldiz, gizon erretiratuak edo pentsiodunak eta etxeko lanetan aritzen diren emakumeak gehiago hurbiltzen dira emakumeen gaineko aurreiritzi eta uste estereotipatu horietara, emakumeen lan eta amatasun rol/itxaropenekin loturik.

Nafarroako egoerari zehazki erreparatuta, bertan bizi diren gizonen % 63k eta emakumeen % 57k uste dute «nahiko berdina» dela emakumeen eta gizonen arteko egoera Foru Komunitatean. Hala ere, gizonen % 22k eta emakumeen % 31k uste dute egoera hori «nahiko desberdina» dela. Horretaz gainera, Nafarroan emakumeek ikusten dute desberdintasuna ehuneko eta proportzio handiagoan emakumeen eta gizonen artean, eta, egoera hori erabat berdintzat jotzen duten pertsonen kasuan, gizonetako bikoiztu egiten dituzte emakumeak, bai ehunekoan, bai proportzian.

Nafarroako (des)berdintasun egoerari dagokionez, oro har, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren aurreko diagnostikoaren emaitzek adierazten zuten bezala, emakume nafarrek lan baldintza okerragoak dituzte oraindik, behin-behinekotasunari (egonkortasun apalagoko kontratuak dituzte), lanaldiari (lanaldi partzialean lan egiten dutenen gehiengo dira) eta soldadari (oraindik ere soldata arrakala nabarmena emakumeen eta gizonen artean) erreparatuz gero. Ildo horretan, pobreziaren eta bazterketa arriskuaren feminizazio nabarmena ageri da Foru Komunitatean. Gizonak eta, bereziki, emakumeek ikuspegi negati-boa dute horri dagokionez:

- Gizonen % 56k eta emakumeen % 67k uste dute emakumeek aukera okerragoak dituztela gizonak baino lana aurkitzeko edo enplegu bat izateko Nafarroan.

- Gizonen % 70ek eta emakumeen % 79k uste dute Nafarroako emakumeen egoera okerragoa dela gizonena baino, beren lan jardueragatik jasotzen dituzten soldatei dagokienez.
- Gizonen % 53k eta emakumeen % 67k okerragozat jotzen dute Nafarroan emakumeek duten egoera lanpostuetan egonkortasuna aurkitzeko edo lortzeko.
- Gizonen % 60k eta emakumeen % 76k uste dute emakumeen egoera okerragoa dela Nafarroan, lan ibilbidean gora egiteari dagokionez.
- Azkenik, gizonen % 54k eta emakumeen % 71k uste dute okerragoak direla Nafarroan emakumeek enpresetan erantzukizuneko lanpostuak lortzeko aukerak eta egoera.

Nafarroan laneko eta familiako bitzita kontziliatzeko benetako aukerei dagokienez, gizonen % 52k uste du emakumeak egoera okerragoan daudela, eta, aldiz, emakumeen % 65 da uste horretakoa.

Nafarroan hezkuntza eskuratzeari dagokionez, bi generoek balorazio bera dute ia aho batez; izan ere, gizonen % 88k eta emakumeen % 90ek uste dute emakumeek erabateko berdintasuna dutela gizonekin alderaturik prestakuntzari ekiteko eta hura garatzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legearen aurreproiektua baino lehen eginiko diagnostikoaren emaitzei jarraikiz, Nafarroako hezkuntza sisteman neska-mutilak sartzeari normalizaturik dago maila guztietan, eta modu orekatuan gertatzen da irakaskuntza orokorreko lehen zikloetan (lehen eta bigarren zikloko haur hezkuntza eta lehen hezkuntza). Hala ere, bigarren hezkuntzatik aitzina, genero berezitasun bat nabarmentzen hasi da, Estatuko eta Nafarroako testuinguruarekin bat datorrena eta, gainera, denboran kroniko bihurtu dena: neskek denbora gehiago irauten dute araututako hezkuntza sisteman, eta eskola uztearen tasa txikiagoak dituzte; halaber, emaitza akademiko hobekiak lortzen dituzte eta neurri eta proportzio handiagoan sartzeari gaitasun maila ikasketetan. Horren ondorioz, geroago sartzeari eta egonkortzen dira lan merkatuan, zeina aldi berean genero banaketak eraginda baitago lanbide karreraren arabera –eskuarki, zenbat eta feminizatuagoak, orduan eta prekarizatuagoak–.

Azkenik, Nafarroan ordezkartzeko eta erantzukizun politikoko postuetan emakumeen eta gizonen arteko (des)berdintasunari erreparaturik, ikusten da nolabaiteko etena ageri dela orain arte izaniko egoeran, zeinean gizonen eta emakumeen balioespen berbera egiten baitzuten, neurri handiagoan edo txikiagoan: orain, gizonen % 57,5ek uste du emakumeek aukera berdina dutela erantzukizun eta ordezkartzeko politikoko posizioak lortzeko, eta emakumeen % 58k, aldiz, uste du gizonen baino egoera eta aukera kaskarragoak dituztela horretarako.

Hori horrela, inkestan parte hartu dutenei galdetu zaien dimentsio zehatz bakoitzari dagokionez, ohartarazten da gai horietan guztietan –bereziki, enpleguarekin zerikusia dutenetan, eta, batik bat, soldatetan eta lan ibilbidean gorantz egiteko aukeretako (des)berdintasun baldintzei dagokionez– emakumeek gizonen baino askoz ere irmotasun handiagoz balioesten dutela beren egoera gizonena baino okerrago gisa. Aldiz, gizonezkoen kasuan, ikusten da moderatu egiten dela emakumeen egoera okerragozat ikusteko joera, eta haien ustez berdinak direla emakumeen zein gizonen baldintzak eta aukerak. Salbuespena izanen litzateke hezkuntzarako sarbidearen gaineko balioespena; izan ere, ia gizon eta, batez ere, emakume guztiek uste dute bi generoek erabateko berdintasuna dutela prestakuntzari ekiteko. Horrekin, agerian geratzen da azken hamarkadetan emakumeen giza kapitala gero eta handiagoa izan dela; hain justu ere, emakumeek hezkuntzan eta, batez ere, maila altuetan eta kalifikazio onenekin parte hartu izana talentuaren eta gaitasunaren adierazle balioetsua da. Hala ere, emakumeen giza kapitalaren garapenak eten-gabe eta nabarmen aitzina egin izanak –emakumeek berek onartzen duten bezala– oztopo bat du lan merkatuan eta ordezkaritza gune publikoetan sartzeko eta sustatzeko garaian.

Oro har, honako hauek adierazten dute irmotasun handiagoz Nafarroan gizonen eta emakumeen berdintasun handi samarra dutela: gazteek –bereziki emakumeek–, ikasleek (bi generoak), goi mailako unibertsitate tituluak dituztenek –bereziki, gizonen– eta diru-sarrera ertain/altuak dituztenek –bai gizonen bai emakumeen–. Aldiz, talde hauetan detektatu dira Nafarroan emakumeen egoeraren eta gizonen egoeraren artean desberdintasun handi samarra edo erabatekoa dagoela uste duten pertsonen ehunekorik handienak (nolanahi ere, gutxienek dira ehuneko horiek): 34 eta 64 urte bitarteko emakumeak; lehen hezkuntzako, eskola-graduatu eta/edo oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak edota erdi mailako unibertsitate titulazioak dituztenak; diru-sarrera altuak dituztenak; eta beste zeregiri batzuetan diharduten emakumeak.

## Ondorioak eta amaierako gogoetak

---

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legeak aitortzen duen bezala, berdintasunez jokatu nahi duen gizarte batek bizitzaren iraunkortasunaren balioa aitortu behar du, eta,aldi berean, hautsi egin behar ditu zainketa-lanak erantzukizun hertsiki edo nagusiki femenino gisa eratzten dituzten genero estereotipoak eta rolak. Hala ere, diagnostiko-txosten honetan azal dutako emaitzek adierazten dute, beste lurralde eta azterlan batzuetakoen ildotik, oraindik ere urrun dagoela berdintasuna Nafarroako familien eta etxeen hornikuntzan, mantenuan, ongizatean eta zaintzan. Zainketa lanen antolaketan eta banaketan dagoen genero desoreka sakon hori da gizarte garaikidea alderdik alde zeharkatzen duen desberdintasunaren adierazle gardenenetako

bat –bai eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ere, dela beren bizitzaren alderdi eta (pre)okupazio desberdinak bateratzeko eta harmonizatzeko errealitateei dagokienez, dela genero berdintasunaren errealitateari edo eraginkortasunari buruzko esperientzia eta pertzepzioei dagokienez, bereziki ezkorrak baitira enpleguari eta kontziliazioari dagokienez–. Gizarte horrek badu araurik eta estrategiarik genero diskriminazio hori arautzeko espazio publikoan eta merkatuan, baina ez etxeen barruan, ez eta beste bizikidetzan esparru batzuetan ere.

Genero desberdintasun horren eta haren estereotipo sateliteen erresistentzia zainketa-lanak hiperfeminizatzeko erregaia da; batetik, eraso egiten dio berdintasun formal eta errealari –zeina erakunde demokratikoei zaindu behar baitute–, eta, bestetik, mugatu egiten du, edo, gutxienez, baldintzatu, emakumeen eta nesken garapena beren bizitzako beste dimentsio edo alderdi batzuetan –hala nola, (in)formazioan, kulturaren, militantzian eta norbere denbora libreaz gozatzeko moduan edo, are, ordainduriko lanean–. Baina, horretaz gainera, bizitza duin eta autonomoa izateko proiektuak diseinatzeko aukerak murrizten ditu (berezko helburu izan daitezkeen, eta ez beste pertsona batzuen helburuetarako bitarteko); hala, beren itxaropenak (berr)egokitu behar izaten dituzte haiengandik sozialki eta indibidualki espero dena, eta izateko moduak irudikatzeko, bizitzeko eta estereotipo heteropatriarkalekin behin betiko hausteko aukerak mugatuz; orobat, desberdintasun horrek hainbat modutan pobretzen ditu hura bizi eta elikatzen duten gizarteak, eta emakumeen talentuez eta ekarpenez gabeturik geratzen dira hainbat alorretan, hala nola politikan, hezkuntzan, artean edo komunikabideetan.

Hala, zaintzaren hiperfeminizazio, pribatizazio eta indibidualizazio horrek ondorio garrantzitsuak ditu emakumeen bizitzetan, baina baita gure gizarte demokratikoen biziraupenean ere; izan ere, haien (erre)produkzio mekanismoak sostengaezinak dira, eta, horretaz gainera, bidegabeak eta diskriminatzaileak. «Zainketen krisia» izenarekin deitzen dugunak –hau da, behar diren zainketen eta horiek asetzeko gaitasunaren arteko desorekak– zaintzaren eraketa sozial, familiar eta indibiduala birsortzea eskatzen du, zainketak bizitzaren erdigunean paratuz eta zainketen sostengua erantzukizun kolektibo gisa hartuz. Krisi hori eraldaketa sozioekonomiko, kultural eta demografikoei eragina da, eta, besteak beste, emakumeak beren agintaldi hertsiki zaintzaitetik atera ditu, nahiz eta,aldi berean, krisi horren *motelgailu naturalizat* jotzen jarraitu. Bide horretan barna aitzina egiteko, hona hemen gomendio batzuk, bi alderdi kritiko kontuan harturik: alde batetik, estatistika eta ikerketa lana hobeki egitea, Nafarroako diagnostiko sozioekonomikoa, politikoa eta kulturala fintzen laguntzeko, eta, bestetik, desagerrarazi nahi diren genero desberdintasuneko errealitateetara hobeki egokitzen diren jarraibide eta estrategia politikoak diseinatzea.

Estatistikaren eta ikerketaren alorrean, eta diagnostikoei loturiko xedeak lortze aldera, honako urrats hauei jarraitzea proposatzen da:

- Estrategia eta neurri publikoen diseinuaren gaineko informazioa ematea, zainketen gaineko ikerketa sozialerako aurrerapenak eta abangoardia aintzakotzat harturik, eta inbertsio publikoa areagotzea arlo horretara ikuspegi desberdinetatik hurbiltzen diren diziplina anitzeko ikerketa feministetan, ezagutza zientifiko kritikoa gizartea eraldatzeko eragile izan dadin.
- Zaintzak aztertzeo baliaibide estatistikoak garatzea, egungo datuen isiltasunak edo gabeziak betetze aldera, hala nola denboraren erabilerari buruzko inkestak, etxeetan zer gertatzen ari den jakiteko, bai eta ongizate- eta lan-adierazleak aldatzea ere, enplegutik aldagai kardinal gisa bereizteko. Gainera, komeni da lehendik ezarritako baliaibide estatistiko batzuk doitzea, zainketa-lantzat jotzen denaren katalogoa zabaltzeko. Hala-ber, ezinbestekoa da etxeetako zainketa-lanen banaketa erabakitzeko edo negoziatzeko moduari buruzko azterketa abiaraztea eta sakontzea.
- Nafarroako Gobernuak berak gomendatzen duen bezala, estatistika eragiketen aldizkakotasuna doitzea Foru Komunitateko genero (des)berdintasunarekin loturik, emakumeek eta gizonek dituzten pertzepzioak eta haien bilakaera ezagutzeko.
- Azkenik, baliaibideak bideratzea datu kuantitatiboak justifikatzen edo laguntzen dituzten ikerketa sozial kualitatiboak egitera (adibidez, sakoneko elkarrizketa edo eztabaida taldeak), emaitza estatistikoak ikertzeko, sakontzeko eta zehazteko; horren helburua ez da izanen zer hori jakitea bakarrik, baita datu kuantitatiboak justifikatzen edo laguntzen dituzten diskurtso eta kontakizunen berri izatea ere (zergatiak, motibazioak, itxaropenak, desio eta premiak, iritziak, eta abarrak).

Bestalde, estrategia politiko publikoen diseinuari eta sustapenari dagokionez, honako gomendio hauek iradokitzen dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Foru Legeak eginiko moduan, «bizitzaren (dimentsio anitzeko) iraunkortasunaren» hizkuntza eta ikuspegia baliatzea. Kontzeptu horrek argi eta garbi adierazten du helburua bizitza dela (eta ez merkata, metaketa edo esplotazioa), eta lehentasuna, berriz, bizitza baldintza onak; alderdi ekonomikoak eta sozialak harreman estua dutela (gizatasunak eta ekologikotasunak bezalaxe); bizitza baliaibide materialen eta afektiboaren sorta baten bidez erreproduzitzen dela; eta premiaz heldu beharra dagoela botere harreman eta desberdintasunei, nola ekonomikoari, hala generoarekin loturikoei.
- Zainketa-lanak eta kontziliaziora bideratutako neurriak desfeminizatzea –neurri horiek, gainera, indartu egin behar dira–, eta, aldi berean, enplegura bideratutako denborak erregularizatzea eta arrazionalizatzea; horretarako, bizitzaren iraunkortasunean inplikaturako prozesuak eta desio eta premiak aitortu eta beteko dituen lan politika bat bul-tzatuko da, iruditeria kolektiboan eta paradigma sozioekonomikoan esku hartuko duena,



lan merkatuak politika publikoetan eta pertsonen bizitzetan duen zentraltasuna desmitifikatzeko.

- Itun, lege, neurri eta estrategia zeharkakoen bidez, erakundeek berdintasun erreal eta eraginkorraren printzipioa defendatzeko eta sustatzeko konpromisoa indartzea –bai esparru publikoan, bai pribatuan (merkatuan, enpresetan eta etxeetan, besteak beste)–, aldaketa sozioekonomikoarekin bat datorren eraldaketa kulturala sustatzeko. Finen, horren helburua da arlo publiko eta politikoak pentsamoldeen aldaketa bultzatzea, bai eta berdintasunezko *sen ona* normalizatzea ere, inertiak urtzeko eta apurtzeko.
- Kontziliazioaren helburua –askotan, emakumeen erantzukizun indibidual gisa hartua– (guztien arteko) erantzunkidetasunaren helburuarekin ordeztzea (edo horrekin osatzea, gutxienez), ulerturik erantzunkidetasuna zera dela, «gizon-emakumeek, gizar-teak, enpresek eta politika publikoek duten erantzukizuna antzeko betebeharrak eta obligazioei dagokienez, bizitza bideragarria eta iraunkorra izan dadin, ekitatearen eta justizia sozialaren ikuspegitik».
- Azkenik, aurreko proposamena zabalduz edo testuinguruan kokatuz, estrategia politiko sendo bat sortzea epe labur, ertain eta luzerarako, eredu sozioekonomiko jasangarri bat sustatu eta sostengatuko duen erakunde sare sendo bat sortzeko. Sare instituzional hori gauza izanen da, alde batetik, beharrezko zainketak aurreikusteko eta emateko gai –gobernu zentralak, autonomikoak eta tokian tokikoek bere gain har ditzaketen zainketen estaldura eta zorro publikoa zabalduz, enplegu publikoa eta kalitatezkoa sustatuz, eta zainketetarako gune komunitarioak sortuz–, eta, bestetik, haien guztien birbanaketa eraginkorra egitea emakumeen eta gizonen artean eta erakunde edo eragile sozioekonomikoen artean, eraldaketak eta berrikuntzak sustatuz politika fiskal, laboral eta sozialetan –eta dimentsio kulturala ere kontuan hartuz–.

Cristina Carrasco Bengoa ekonomialari feministaren hitzak geure eginez, «bizitza guztiek izan behar dute jasangarriak, eta guztiok parte hartu beharko genuke horretan». Hori horrela, eta Lina Gálvez Muñoz ekonomialari feministaren esanari jarraikiz, «ekonomia eta etika berri baten funtsezko pieza» izanen lirateke zaintzak, baita gizarte berritzat har genezakeenaren funtsezko zati ere. Zainketen birbanaketa erantzunkidea gai kritikoa da, alde batetik, gure gizartearen iraunkortasunerako, eta, bestetik –eta hagitz bereziki–, gizarte horiek modu justu, berdinzale eta, beraz, demokratikoan erreproduzi daitezten. ●